

# IPUINEN HERRIKO ERREGEA

Iñaki Aldai  
ialday@irakasle.net

("Koloreen antzerkian oinarritutako testua")

ADINA

2. 3. eta 4 maila

PERTSONAIAK

. Ama                      . Sorgina                      . Ipotxa 1 . Edurne Zuri.  
. Mikel                      . Xagua 1                      . Ipotxa 2 . Txerritxo.  
. Otsoa                      . Xagua 2                      . Ipotxa 3 .Txanogorritxu  
. Hamelingo xirularia

*(Ama eta Mikel logelan daude. Lotarako ordua da eta ama ipuina irakurtzen ari da).*

Ama:                      "- Nolako begi handiak dituzun!

- Zu hobeto ikusteko.
- Nolako belarri handiak dituzun!
- Zu hobeto entzuteko.
- Nolako aho handia duzun!
- Zu hobeto jateko aaahhhhh!!!

Eta otsoak Txanogorritxu jan zuen.

Baina handik gertu zegoen ehiztari batek, dena ikusi, eta bere eskopetarekin otsoa hil egin zuen.

Otsoaren sabeletik, Txanogorritxu eta amona atera zituen eta handik aurrera oso pozik bizi izan ziren."

Mikel:                      Bai ipuin polita amatxo.

Ama:                      Bai horixe. Orain musu bat eman eta lo egin.

Mikel: Kontatu beste ipuin bat ama.

Ama : Ez, berandu da. Orain lo egiteko ordua da.

Mikel: Jo, ama. Azkenaaaa.

Ama: Ezetz. Itzali argia eta ondo lo egin. *(Amak argia itzali eta logelatik ateratzen da).*

Mikel Jope, nik beste ipuin bat nahi dut.  
Badakit ! Osaba Joxek oparitu zidan ipuina nire linternaren argiarekin irakurriko dut hementxe.

*(Ipuina hartu, linterna piztu eta ipuina irakurtzen hasten da).*

Mikel: "Bazen behin ipuinen herria, eta herri hartan gure ipuinetako pertsonai guztiak bizi ziren:... *(Arrausi egiten du)* Hamelingo txirularia, 7 ipotxak, sorgina, otsoa... guztiak... *(berriro ere arrausi egiten du).* Egun batean... beraien artean... erregea... aukeratzen hasi ziren.

*(Mikel lokartu egiten da. Orduan ipuinetako pertsonaiak eszenatokira sartzen dira. Eszenatoki erdian mahaitxo bat dago. Lehenik Hamelingo Txirularia erdiratu eta mahaira igotzen da).*

H. Xirularia: Neu izango naiz erregea!

Besteak (Ipotxak, sorginak eta otsoak): Zergatik zu?

H. Xirularia: Nire xirularekin guztiak maitemintzen ditudalako.  
Ikusi.

*(Mahaitik jeitsi eta xirula jotzen hasten da.  
Eszenatokira 3 sagutxo sartzen dira eta xirulariari*

*dantzatzen jarraitzen diote. Ondoren berriro ere mahai gainera igotzen da)*

Sorgina: Alde hemendik alproja halakoa! *(bultzakada batez mahaitik jaurtitzen du)*.  
Soinu ziztrin horrek belarriko mina baino ez du eragiten. *(mahaira igotzen da)*  
Ni izango naiz hurrengo erregea!!!

Besteak: Zergatik zu?

Sorgina: Nik botere magikoak ditudalako.  
Edurne Zuri, etorri hona! Proba ezazu sagar goxo hau.

Edurne Zuri: Bai sagar goxoa *(sagarrari koska egin eta lo gelditzen da)*.

Sorgina: Ikusten?

Otsoa: *(sorginaren gana hurbidu eta bultzakada batez lurrera jaurtitzen du)*  
Egon isilik sorgin petral halakoa.  
Ni izango naiz erregea.

Besteak: Zergatik zu?

Otsoa: nik indar handia dudalako. Begira.

*(Eszenatokian txerri txo bat kartoizko ate baten atzean kokatzen da)*.

Otsoa: Txerri txo! Ireki atea!

Txerria: Ez, ez eta ez.

Otsoa: Ireki atea edo oraintxe bertan behera botako dut!

Txerria: Ez, ez eta ez.

*(Otsoak, putz eta putz egiten hasi eta atea bertan behera botatzen du).*

Txerria: Lagundu! Lagundu! Nire anaiaren etxera joango naiz. *(korrika baten eszenatokitik ateratzen da).*

Otsoa: Ja, ja, ja. Ikusi al duzue?

Ipotxak 1+2+3: *(Otsoarengan hurbildu eta bultzatuz. )* Alde hemendik otso gaiztoa!  
Gu izango gara erregeak!

Besteak: Zergatik zuek?

Ipotxak: Guk herri honi alaitasun pixka bat ematen diogulako.  
*(Mahaitik jaitsi, eta ilaran jarririk, alde batetik bestera joanez, kantuan hasten dira)*

Ai bo, ai bo  
ipotxak gara gu  
hanka txiki  
hanka txiki  
bihotz handi

*(Xirulariak, otsoak eta sorginak hipotxei bultza egiten diete)*

Xirularia: Horiek tontokeri hutsak dira. Ni izango naiz erregea.

Sorgina: Ez, ez. Ni erregina.

Otsoa: Isilik denok ni naiz erregea eta.

Ipotxak: Bai zera! Gu erregeak.

*(Guztiak haserre bultzaka eta kolpeka hasten dira borroka handi bat sortuz. Une bat geroago Txanogorritxu eszenan sartzen da).*

Txanogorritxu: Zer gertatzen da hemen?

Xirularia: Guztiok errege izan nahi dugula.

Otsoa: Baina ez gara ados jartzen .

Sorgina: Txanogorritxu, zuk aukeratu erregea.

Besteak: Hori, hori. Zuk aukeratu.

Txanogorritxu: Ongi da. Nor da hemen inportanteena?

Guztiak: Ni! ni! ni! ni!

Txanogorritxu: Ixo! Guztiok zarete beharrezkoak. Baina inportanteena... Mikel da.

Guztiak: Mikel???

Txanogorritxu: Bai, Mikel. Mikelek irakurtzen ditu gure ipuinak, eta ez balitu irakurriko gu ez ginake existituko.

Xirularia: Egia da!

Sorgina: Arrazoia duzu.

Sorgina: Deitu egingo diogu.

Ipotxak: Mikel, etorri!!! *(Mikel eszenatokian sartzen da)*

Txanogorritxu: Mikel, Ipuinen herriko erregea izendatzen  
zaitugu.  
*(Koroi bat buru gainean jartzen dio).*  
Gora erregea!

Guztiak: Gora!!!

*(Teloia itxi edo argiak itzaltzen dira. Berririo piztean, Mikel lo  
dago ipuina esku artean duela. Amak bastidoreetatik hitz egiten  
du)*

Ama: Mikel! Esnatu! Jaikitzeke ordua da.

Mikel: Ama, ama! Erregea naiz!

Ama: Zer?

Mikel: Bai ama, Ipuinen herriko erregea!

Ama: Ai Mikel, Ametsetan ibili zara.  
Jantzi arin berandu gabiltza eta.

Mikel: Ametsa? Benetekoa zirudien ba.  
*(Gainean zerbait duela ohartu eta eskuak burura  
eramaten ditu. Koroi bat duela konturatzen da).*  
Ama! Ama! Begira...

Ama: *(Bastidoreetatik jarraitzen du hitz egiten)*  
Mikel, Berandu dela! Espabilatu!

Mikel: *(Ipuina esku artean hartu eta ipuinari hitz egiten  
dio)*

Beno, hau gure arteko sekretu bat izango da. Bale?  
Ama! Banoa. (*Eszenatokitik atera egiten da*).

Iñaki Aldai